


Ura gure lupa

Nola handitu dezake irudia ur-tanta soil batek?

Materialak

- Kable bat
- Iltze handi bat
- Plastikozko edalontzi bat
- Iturriko ura
- Egunkaria



Zer egin

1. Bildu kablea iltzearen inguruan, begizta baten itxura emanaz
2. Atera iltzea kabletik, baina poliki, forma ez galtzeko moduan.
3. Sartu begizta iturriko ura duen edalontzi batean, ur-tanta bat harrapatuta geratzeko moduan. Aztertu begiztako ur-tanta.
4. Jarri begizta egunkariaren gainean, eta begiratu uretatik zehar. Zer gertatu zaio testu inprimatuari?

Zer gertatzen da?

Egunkariko testu inprimatuak handiagoa dirudi ur-handitzailetik begiratuta. Begiztako ur-tantari begiratutakoan, tontortxo bat ikusiko zenuen erdian. Luparen forma berekoa da. Ganbil bikoitzeko forma duen urak lupak bezala jarduten du.

